

MENDINET, LANDA GARAPENAREN AURRERAPENERAKO ELKARTEA

Sozietatearen izena

Mendinet, Landa Garapenaren Aurrerapenerako Elkartea

IFK

G01341718

Izaera

Elkartea.

Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

Aurrekontu-araubidea

Gutxi gorabeherakoa.

Sorrera

2002ko martxoaren 27an eratu zen irabazi-asmorik gabeko elkarte gisa eta ekainaren 20an inskribatu zen Elkarteen Erregistroan, [2003ko urtarrilaren 8ko EBAZPENean, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Azterlanen eta Araubide Juridikoaren zuzendariak Bazkunen Erroldan joan den ekainean egin diren sarrerak eta oharrak argitaratzeko emandakoan](#), jasota dagoenez.

Sail-atxikipena

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna.

EJSN

9609 Beste inon sailkatu gabeko beste zerbitzu pertsonal batzuk

Helburua eta xedeak

Entitatearen helburuak dira, beste batzuen artean:

- Kudeatzaile gisa parte hartzea LEADERen sartutako 2007-2013 Landa Garapen Jasangarriko Programaren ardatzetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako Elkarreak landutako Landa Garapenerako Programaren arabera.
- Administrazioak sentibilizatzea jarduketaren xede diren eremuetako baliabide endogenoen aprobetxamendua optimizatzeko garapen harmoniko eta integratua lortze aldera.
- Elkartekideentzako informazio-hartzaile eta -banatzaile izatea, Landa Garapenaren inguruko informazioari dagokionez, batez ere une oro erabilgarri dauden dotazioak, baliabideak eta proiektuak ezagut ditzaten, proiektu horietan parte hartu ahal izateko.
- Elkartekideen artean Landa Garapenerako esperientziak eta metodologiak elkarrekin trukatzeko bidea egitea.
- Garapen-programak prestatzen eta gauzatzen parte hartzea.

Sailkapena kontabilitate nazionalan

Sozietate ez-finantzarioak.

Sozietatearen Funtza

5.700 €

Bazkideak

Mendinet [Euskal Autonomia Erkidegoko landa-garapen elkarteek](#) eta HAZI Fundazio publikoak osatzen dute.

Bazkideen Batzar Orokorra da elkartearen gobernu eta administrazioako organo gorena eta bazkide guztiek parte hartzen dute bertan

2012ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	457.188 €
Ondare garbia	5.699 €
Salmentak eta merkataritza-jarduerako beste sarrera batzuk	8.783 €
Batez besteko langile-kopurua	1

Sozietatearen helbidea

Arkaute z/g, 01192 Arkaute (Araba).

Webgunea

www.mendinet.org